


Urpean zeuden arkeologia-aztarnategiak azaleratu dituzte Australian

Aurrenekoz, kultura aborigenei lotutako arkeologia-aztarnategiak azaleratu dituzte Australiako uretan. Uhartearen iparraldeko bi aztarnategitan, gutxienez duela 7.000 urtekoak diren 270 objektu arkeologiko aurkitu dituzte. Horietatik bat duela 8.500 urtekoa dela uste dute.



Aborigenei lotutako industria litikoa aurkitu dute urpean. ARG.: PLOS ONE (eraldatuta).

Jakina da Izotz Aroaren amaieran itsasoaren maila gaur egungoa baino baxuagoa zela, eta horrek aztarnategi asko urperatzea ekarri zuela. Australiaren kasuan, ikertzaileek uste dute gaur egungo itsasertzetik 160 bat kilometrora zegoela orduko kostaldea, eta, ondorioz, bi milioi kilometro koadro urpean geratu zirela. Horregatik, Australia inguratzen duten uretan ezagutzen ez diren antzeko aztarnategi asko egon daitezkeelakoan daude adituak. ●

Izar masibo baten desagerpenak astrofisikarien arreta piztu du

Galaxia nano batean dagoen izar masibo ezegonkor bat desagertu dela konturatu dira Europako Behatoki Australeko (ESO) astrofisikariak, eta orain arte ezagutzen ez den fenomeno baten adierazle izan daitekeen susmoa piztu du horrek.

Azaldu dutenez, baliteke izar horren distiraren desagerpena espazio-hautsak sortutako ezkutaketa baten ondorioa izatea, baina bestelako azalpen posible bat proposatu dute: izar hori azken fasera iritsi dela, eta zulo beltz bihurtu dela, baina supernoba bat eragin gabe. Horrela izanez gero, halako izar-mota baten amaiera ikusten den aurreneko aldia litzateke. Izar aldakor urdin argitsu motakoa zen izarra, Eguzkia baino 2,5 milioi aldiz distiratsuagoa.

75 milioi argi-urtera dagoen Kinman galaxian zegoen izarra, eta, haren bizitzaren azken uneetan egonik, duela hogeita urtetik zientzialariek jarraipena egin diote. Alabaina, iaz Txileko VLT teleskopioa galaxia horri begira jarri zutenean konturatu ziren izarra desagertuta zegoela. Supernobarik egon ez bada ere, aurreko urteetan hainbat leherketa atzeman dira galaxia horretan, eta horiek ere izarraren amaierarekin lotuta egon daitezkeela uste dute. ●



Lehertu aurretik Kinman galaxian kokatutako izarrak izan zezakeen itxura, irudikapen baten arabera. ARG.: ESO/L. Calçada.